

Presondegia geografia duen ipuin bilduma idatzi du Jon Gaztelumendik

Puerto de Santamariako espetxean idatzi du oreretarrak 'Haizea mindu gabe'

Amagoia Iban / Donostia

1997 eta 1999 bitartean idatzi ditu Jon Gaztelumendik (Orereta, 1961) bere lehen liburuko ipuinak. Espetxe giroa eta pasadizoak ditu muin idazleak ipuinotan, fantasia erantsiz errealitateari. Susa argitaldariaren ordezkariak atzo aurkeztu zuten lan hori, Donostian. Gutuna bidali zuen presoak aurkezpenerako.

GORKA ARRESE ETA MIKEL ELORZA izan ziren atzo Jon Gaztelumendiren lehen liburua aurkeztzen. 1986ko urtarrean atxilotu zutenetik, Carabanchel, Alcalá Meco, Herrera de la Mancha, Badajoz, Tenerife, Langraiz, Salto del Negro eta Puerto de Santa Mariako espetxeak ezagutu ditu idazle berriak sakabana-ketaren ondorioz, eta azken horretan da egun. Azken horretan eman ditu ere atzo aurkeztu zen liburuko 11 ipuinak,

Gutun bidez azaldu zituen bere lehen lanaren inguruko inpresioak Gaztelumendik, eta prentsaurrekoan irakurri zuten Susakideek. Horrela jakin genuen *Haizea mindu gabe*-ko 11 ipuinen artean *Zerua urez hustu zen bitartean* kontakizuna nabarmendu beharrean ikusten dela egilea, «idatzi nuen lehena izan zelako».

Bi urteko lana

Susakoeak azaldu zuten: «Lehen ipuinak 1996aren bukaeran hasi zituen, baina bukatu, 1997an bukatu zituen. Azken ipuina, berriz, aurten bertan amaitu du».

Akordio baten ondorengo



Atzo eguerdian Donostian aurkeztu zen Gaztelumendiren lana. Arratsean, Oreretan izan zen aurkezpena (argazkian), Jose Luis Otamendi, Goizalde Atxutegi, Iñigo Aranbarri eta Joxemari Carrereren parte hartzearekin.

JON GAZTELUMENDI

Kartzela abiapuntu:

■ ■ ■ *«Guk geuk, preso eta pertsona gisa, bizipenak eta giroak birsortuz, gure inguru hurbilaren isla dira kontakizun hauek»*

lehen ipuina izan omen zen lehena, dio Gaztelumendik. «Lehenengo ipuinari bigarren batek jarraitu zion, eta tarte horretan, lehenengotik bigarreneko bidean, bi iritzi osatu nituela aitor diezazuket. Alde batetik, zer kontabazegoela: Historiak bazterrean uzten dituen gertaerak alegia, eta geu protagonistak izanik gainera, gure mundu hau. Bestetik, kontatzeko era propioa egin behar nuela, eta erronka horri eutsi behar niola nola edo hala».

Ipuin ehotze prozesua ederra izan omen da beretzat. Inguruari begiratu, entzunez, idatzi ditu ipuinak: «Guk geuk, preso eta pertsona gisa, bizipenak eta giroak birsortuz, gure inguru hurbilaren isla dira kontakizun hauek: txapeo egoerak, lagun elkartzek, espetxeetan, barruko bizigiroa, barrukanpo arteko loturak, etxeko artekoekin, eta abar».

Zerua urez hustu zen bitartean lehen ipuin hura Sopelara iritsi zen, Goizalde Atxute-

gi lagunaren eskuetara. Baina ezusteko ibilbidea egin omen zuen gero, «Jokin Urain nire adiskidearen eskuetatik Jose Luis Otamendi lagunaren eskuetara joan zenean. Liburua egiteko asmoa, proposamena eta sustatzaile nagusia izan da Otamendi... eta Susako lagunak... eta Kixkur, Gorri, Lurdes, Oskar, etxekoak...».

Idazlearen estiloaz

Gaztelumendiren estiloaz aritu zen Gorka Arrese bere aldetik: «Dotorezia harrigarriko estiloa dela uste dut. Perzepzio oso biziko narratzailea da. Euren eguneroko mingarri zein zital hori askatasunik ez duenak bakarrik dakien moduan eskribitzen du. Hainbat ipuin sortzen ditu ipuin bakarrean. Pertsonaia galeria oso zabala du».

Euskadi Literatur Sariak bederatzi milioi pezeta banatuko dituzte

■ 1997an 5.000 liburu baino gehiago argitaratu ziren euskaraz, %35 literatur arlokoak

Efe / Bilbo

EUSKO JAURLARITZAK antolatutako Euskadi Literatur Sariak 9,6 milioi pezeta banatuko ditu bere lau atalen artean: euskarazko literatura, gaztelaniazkoa, haur eta gazte literatura eta literatur itzulpena. Horrez gain, euskarazko lanen itzulpenarako dirulaguntzak eta Zabaltze Saria banatuko dira Euskadi Sarien karrera. Felipe Juaristi euskarazko literaturan, Patxi Zubizarreta haur eta gazte literaturan eta Jon Muñoz itzulpen arloan izan ziren iazko irabazleetako batzuk. Xabier Montoiak jaso zuen Zabaltze Saria eta Jose Fernandez de la Sotak gaztelaniazko literaturakoa.

Imanol Agote Kultura sailburuordeak atzo azaldu zuenez, «gure muga geografikoak gainditu ditzaketen euskarazko eta gaztelaniazko liburuak sustatzea eta zabalkunderrako laguntza ematea dira sariotako helburuak». 1997an 5.000 liburu baino gehiago argitaratu ziren euskaraz, horietako %35 literaturakoak.

Euskadi Sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea ekainaren 16an amaituko da. Iazko ekitaldian hamazazpi liburu aurkeztu ziren euskarazko literaturan, beste horrenbeste gazte eta haur literaturan, hamabost gaztelaniazkoan eta hamalau itzulpen arloan.